



ALBOAN
www.alboan.org

Badauka generorik partaidetzak? Oztopoak hausten emakumeen partaidetzan



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Esperientziak ALBOAN

...

3. Nazioarteko boluntariotzaren erroak, iparraldeko ikuspegi batetik. (2007)
4. Nazioarteko boluntariotzaren erroak, hegoaldeko ikuspegi batetik. (2007)
5. Nazioarteko boluntariotza: topaketa baterako gakoak. (2007)
6. El desarrollo alternativo por el que trabajamos. Aprendizajes desde la experiencia. (2011)
7. Parte-hartzea, gizartea eta demokrazia. (2015)
8. Badauka generorik partaidetzak? Oztopoak hausten emakumeen partaidetzan. (2015)

Badauka generorik partaidetzak? Oztopoak hausten emakumeen partaidetzan



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2.
48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135

Barañain etorbidea, 2
31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302

Andia, 3
20004 Donostia
Tel.: 943 275 173

Estenaga Apezpikua, 1
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Data: Ekaina 2015

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-1826-2015

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Edukia

Sarrera	5
Partaidetza ikusezinaren kartografiarantz. Emakumeen tokiko partaidetzarako mapak proiektatzen.	7
<i>Jone M. Hernández. UPV-EHUko Antropologia Sozialeko irakaslea</i>	
Nola hurbildu emakumeen partaidetzara? Partaidetza eta generoa	7
Herritartasun eta partaidetza kontzeptuek islatzen al dute gaur egun emakumeen errealitatea?	8
Partaidetza berriro formulatzen eta pentsatzen	9
Partaidetza berriro pentsatzeko proposamen batzuk. Herritartasun eredu berrietarantz	9
Ikerketaren analisia	11
Partaidetzarako bitarteko esfera edo espazioak edo “zubiak”	11
Nola sustatu emakumeen partaidetza tokiko esparruan?	12
Azken gogoetak	13
Emakumeen partaidetza, erabakigune politikoetan	15
<i>Belia Concha Alburquerque. Cutivalú irratiaeren zuzendaria</i>	
Aurrekariak	16
Emakumeen herri partaidetza	19
Emakumeen partaidetza politikoa	22
Emakumeen partaidetzaren mugak	25
Ondorioak	29

Sarrera

2008an lehertu zen krisi ekonomiko eta sozialak krisi politiko sakona ere ekarri du. Espainiako Estatuko hainbat plazatan, “Ez gaituzte ordezkatzin” zioten oihuak entzun ziren, eta horiek isla izan zuten geroago beste zenbait herrialdetan. Bertako herritarrak kalera atera ziren, euren beharrak eta arazoak kontuan hartzen ez dituen sistema batekiko gaitzespena erakusteko. Aldi berean, azken urteotan, hainbat erakunde publiko herritarren partaidetza handiagoaren alde agertu dira, herritarren eta administrazio publikoen arteko topaketa eta bateratzea lortzeko asmoz. Nola gerta daiteke paradoxa hori?

ALBOAN erakundea luzaroan dabil herritarren partaidetzaren gaia lantzen. 2007. urtean, lehenengo ikerketa argitaratu genuen; bertan, partaidetzaren oinarriak ezarri genituen, eta Hegoaldeko hainbat erakunde kideren esperientziak Euskal Herrian egindako beste esperientzia batzuekin elkartu genituen. Protagonistak eraikitzen dituen eta pertsonen, taldeen eta erakundeen gaitasunak indartzen dituen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu. Pertsonak zerbitzuen onuradun gisa antzematen dituen ikuspegi utilitarista gainditzen duen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu, euren burua eta ingurua garatzeko eragile diren herritarren protagonismoa sustatzen duen partaidetzaren aldekoa. Modu horretan, partaidetzako prozesuek herritarrentzako oinarritzako prestakuntzarako eskola gisa jarduten dute, eta gerora sortuko diren aldaketa pertsonal eta kolektiboen oinarria dira.

Baina partaidetzak ez du herritartasuna eraikitzen soilik; demokrazia zimendatu ere zimendatzen du. Hegoaldeko hainbat herrialdetan, neurri handi batean herritarren partaidetzako esperientziei esker, bertako sistema demokratiko ahulak indartu dira. Zenbait kasutan, politika publikoak hobetu eta giza garapenerako emaitzak lortu ahal izan dira. Horretarako, beharrezkoa da uste oker hau apurtzea: pobrezia egoeran dauden pertsonak izaki pasiboak,

hartzaileak eta garapen politiken onuradunak direlako ideia, alegia. Partaidetza sustatzeak herritarrekiko ikuspegia aldatzea dakar, eta partaidetza-prozesu orok herritartasuna eraikitzeke eduki behar duen izaera sustatu behar da; aukerak lortzeko eta askatasuna baliatzeko baldintzak sortzea dakar horrek.

Herritarren partaidetzako erronka handiak bi ardatzen inguruan biltzen dira: bata, nola inplikatu gizartea interes komunak zehazteko; bestea, zein espazio eta alorretan hartu behar diren erabakiak. Erakunde publikoek gizartearen eta horien talde antolatuen interesak ulertzeko modua ere beste alderdi garrantzitsu bat da, bezerotzan eta erakundeen edo horien liderren kooptazioan erori gabe. Partaidetzarako espazioak sustatzeak alderdi publiko, sozial eta politikoetan interesa duen gizartea eraikitzeke bidean jarri behar gaitu. Interes hori lagungarria izan daiteke gizarte zibileko talde formalentzat eta herritarrentzat oro har, Estatuarekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko baldintzak eraikitzeke. Baldintza horiek herritarren ondasun komuna eta ongizate orokorra lortzera bideratu behar dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da herritarrek protagonismoa hartzea, euren bizitzan eragiten duten gaien inguruko erabakiak hartzeko orduan.

Aurkezten dugun koadernoan, benetako partaidetza izateko ezinbesteko baldintzetako bati ekiten zaio: inor partaidetza prozesutik kanpo ez geratzea, alegia. Emakumeen kolektiboak du erabakitzeke esparruetatik kanpo geratzeko arrisku handiena. Gauza jakina da gizarte patriarkalean bizi garela, eta, gizarte honetan, emakumezkoen rola etxeko esparrura mugatzen da; horrek aurrez aurre egiten du talka espazio publikoetan parte hartzearekin eta bertan erabakiak hartzearekin. Ezin dugu inola ere esan demokrazia dagoenik, partaidetzarako biderik ez badago, eta, era berean, ezin dugu esan partaidetza dagoenik, herritarren erdiak prozesu horretatik kanpo uzten baditugu. Dokumentu honetan zenbait gai jorratuko dira: emakumeek parte hartzeko gaintitu behar dituzten oztopoak; horiek gaintitzeko estrategiak; egungo egoeran hala Perun nola Euskadin, eta parte hartzeko moduak.

Partaidetza ikusezinaren kartografiarantz. Emakumeen tokiko partaidetzarako mapak proiektatzen.

Jone M. Hernández. UPV-EHUko Antropologia Sozialeko irakaslea

Aurkezpenaren izenburua bat dator 2007-2008 ikasturtean beste 2 pertsonarekin batera Kataluniako bi udalerritan egin nuen ikerketa batekin. Ikerketa horri esker, partaidetzaren esparrura hurbildu nintzen, ikuspegi feministatik. Lehenengo saiakera hori esperientzia interesgarri eta aberasgarria izan zen, baita erronka bat ere. Testu honen edukia lan horretatik sortutako emaitzetan oinarrituko da.

Ikerketa praktikan jartzeko abiapuntuetako bat izan zen Dolores Juliano antropologo katalanak brodatuaren arteari buruz egindako hausnarketa. Julianok dio jantzien museorik ospetsuenetan eskuz egindako oso lan finak (brodatuak, pappailak eta abar) antzematen direla. Lan horiek esfortzu handiz eginda daude, eta lan ordu ugari pilatzearen emaitza dira. Sarritan, emakumezkoek egindako lanak dira, eta oso espezializazio maila altua eskatzen dute; hala ere, arte txikitzat hartzen dira. Gertakizun horren harira, Dolores Julianok ondorioztatzen du kontua ez dela emakumeek garrantzi txikiko gauzak egiten dituztela, baizik eta gizarteak sinestarazten digula emakumeek egindako lana ez dela garrantzitsua; gizarteak katalogatzen du, hortaz, emakumeen lana modu horretan. Bere ikuspegia oso interesgarria iruditu zitzaidan.

Nola hurbildu emakumeen partaidetzara? Partaidetza eta generoa

Teoria feministak zehazten du partaidetzaz aritzeko beharrezkoa dela “genero-sistemak” zer dakarren kontuan hartzea. Egiturazko sistema da, eta gizon eta

emakumeen arteko desberdintasunak kudeatu eta finkatzen ditu. Genero-sistema honen ezaugarrietako batzuk hauek dira:

- Kultura eta gizarte guztiei eragiten die, nahiz eta ezaugarri desberdinak eduki bakoitzean.
- Historiako aldietara egokitzeko aldatzen da.
- Desberdintasunak ez dio bizitzaren alderdi isolatu bati eragiten, baizik eta jarduera eta harreman sozialen osotasunari. Partaidetza aztertzen bada ere, kontuan hartu behar da egitura honetan txertatuta dagoela, eta, beraz, horren eragina jasotzen duela, eta, aldi berean, besteengan eragiten duela. Beraz, genero-sistemak baldintzatutako elementua da partaidetza. Pieza bat aztertzeak gainerakoak ere aztertzea behartzen du. Elementu guztiek lotura dute.
- Genero-sistemak balioa kentzen dio emakumeen zereginari, gizonen izaerari eta zereginari egokitzen zaien neurrian, horiek osatzen baitute eredu arautzailea. Haiek dira gure erreferentzia, gure gizarteetan izaera eta zeregina zehazteko orduan. Sistema hau ulertzeak desberdintasunen zergatia ulertzen laguntzen du, baita desberdintasun horiek nola sortu eta birsortzen diren ere, maskulinoan erdigunean jartzen duen eredu hegemonikoari esker.

Partaidetza ikuspegi horretatik aztertzen bada, ikusten da emakumeen protagonismoa mugatu egin dela, historikoki esleitu izan zaien erantzukizun mota dela-eta. Partaidetza politiko eta sozialean, emakumeak kanpoan geratzen dira. Sistema horrek emakumeak zeregin jakin batzuekin, normalean, zaintzakoekin (adiera zabalean), lotzen ditu, eta partaidetzatik urruntzen ditu. Horrela, ematen du herritarra izatea bateraezina dela bizitzako beste zeregin batzuekin, zeinak, paradokikoki, beharrezkoak diren bizirauteko. Orokorrean, partaidetzaz edo herritartasunaz hitz egiten denean, albo batera geratzen dira edo ez dira kontuan hartzen emakumezko taldeen esperientziak.

Herritartasun eta partaidetza kontzeptuek islatzen al dute gaur egun emakumeen errealitatea?

Ikerketaren proposamenaren oinarria da partaidetzaz ari garenean zeri buruz ari garen pentsatzea. Partaidetza kontzeptua erabiltzen denean, praktika, egoera, interes eta helburuei buruz hitz egiten da, baina zeren eta noren arabera?

Ikerketaren asmoa zen partaidetzaren inguruan hausnartzea, baina ez ikuspegi abstraktutik, baizik eta emakumeengana hurbilduta, euren errealitatea eta egunerokotasuna ezagututa. Horrela, uste genuen posible zela partaidetza ulertze-ko modu berriak argitzea: emakumeei galdetuta zer den eurentzat partaidetza, nola ulertzen duten praktika hori, parte hartzen dutela sentitzen duten, non parte hartzen duten, zein interesekin.

Partaidetzaren kontzeptua berriro pentsatzea da kontua, bere esperientzietatik, bizipenetatik eta definizioetatik abiatuta, eta, modu horretan, partaidetzaren, herritartasunaren eta horiek dakartenaren inguruan daukagun ikuspegia zabaltzea.

Partaidetza berriro formulatzen eta pentsatzen

Feminismoak espazio pribatuaren eta publikoaren arteko dikotomiaren kritika nabarmendu du, baita partaidetza eta espazio publikoa lotuta egon behar direlako ideia ere. Partaidetzak espazio publikoan egon behar du? Badago parte hartzeko modu bakar bat? Gai hau jorratu duten lan batzuetan, sareen garrantzia, kontzeptu gisa duen balioa, horien kudeaketa, jatorria eta garapena azpimarratzen da. Sarea osatzeak berak emakumeen partaidetza dakar.

Partaidetza berriro pentsatzeko proposamen batzuk. Herritartasun eredu berrietarantz

1997an Bartzelonan izandako *I Congr s de Dones* kongresuan, emakumezko talde bati partaidetza definitzeko eskatu zitzaion, eta honela definitu zuten:

- ... *gure gizartea eraikitzeko prozesuan (kasu honetan, hain zuzen, Bartzelona hiria eraikitzeko prozesua) eragiten duen edozein jarduera, ekintza eta erabaki-hartze,*
- ... *emakumeok modu masibo eta zeharkakoan hartzen dugu parte, ez gaituzte zorrotz hartzen, baina partaidetzako askoz esparru gehiago hartzen ditugu. (...) partaidetza emakumeen presentziaz bustitako belakia dela imajinatu ohi dugu, eta bertatik harremanetarako eta bizikidetzarako moduak sortzen direla pentsatu ohi dugu: sare informalak, berbaldunak, gizartea mantentzen dutenak, hiria eta kultura eraikitzen dutenak, eta emakumeak subjektu kolektibo bihurtzen dituztenak.*

Hau da, partaidetza gauza egunerokoago, irekiago eta dinamikoago hartzen zuten.

Esan dugun bezala, partaidetza berriro pentsatzeko beharra proposatzen genuen lan horretan, prozesu horretan emakumeen esperientziak gehituta. Modu horretan, hauxe izan daiteke partaidetza:

- gizartea eraikitzeko interesa motibagarri den edozein ekintza,
- egunerokotasunari lotutako jarduerak,
- jarduera pluralagoak eta dinamikoagoak izan daitezke, partaidetzaren harreman-izaeran indarra jarrita.

Honakoak beharrezkoak dira partaidetzaren definizio desberdina osatzeko bidean aurrera egiteko:

- mitoak (sorkuntza ideologikoak) alboratzea:
 - Emakumeek ezin dute loturarik ezarri euren artean (emakumeak euren buruen etsai nagusiak dira).
 - Emakumeak ez dira gai elkarrekin lan egiteko: solidaritatea “dohain” maskulinoztat aurkezten da.
- Planteamendu berriak pentsatzea, partaidetza ikertu eta aztertzeko.

Ondorioz, partaidetza berriro pentsatzeak honakoa eskatzen du:

- Solidaritatea eta babesa pertsonen arteko aliantzen jatorri gisa identifikatzea.
- Lankidetzaren sareetan egituratzen dela ikustea.
- Loturak sortu eta sareak gauzatzen diren espazio eta toki zehatzei arreta ematea.

Kontua ez da partaidetza formalaren garrantzia ezeztatzea, baizik eta partaidetza mota informalago batean ere pentsatzea.

Gainera, metodologiari begira, beharrezkoa da partaidetza informala ikusaraztea, partaidetzaren analisisira hurbiltzeko estrategia berriak bilatzea. Nola egin daiteke?

- Babes soziala sortu edo finkatzera bideratutako jarduerari arreta eskainita: bizitzari berari eusten dioten jarduerak, gizarte iraunkortasuna.
- Sareen analisisan sakontzea: analisi horrek partaidetzaren eguneroko eta harremanezko alderdia eraikitzen du berriro; partaidetza informalaaren hezur-dura prestatzen laguntzen du, eta hori gauzatzen laguntzen du.
- Sareak (partaidetza informala) azaleratzen, sortzen, sustatzen eta eusten diren espazioak deskubritzea. Balioan jarri behar diren espazioak, interes ekonomiko eta produktiboen arabera konfiguratutako tokiaren aurrez aurre.

Ikerketaren analisia

Landa-lana bi udalerritan egin zen: Sabadellen eta Santa Coloma de Gramaneten. Ikerketaren metodologia edo teknika nagusia sareen analisia izan zen; horretarako, hala analisi kuantitatiboa nola analisi kualitatiboa egin ziren, sakoneko elkarrizketetan oinarrituta. Sareen analisia 12 emakumerekin gauzatu zen, ikerketarako hautatutako udalerrietako bakoitzean. Gainera, elkarrizketekin eta eztabaida-taldeekin osatu zen analisia. Adina, lan-egoera eta familiako zamak izan ziren erabilitako aldagaiak. Beste aldagai batzuk ere erabili ziren, adibidez, prestakuntza-maila, partaidetza formalaren maila edo jatorrizko herrialdea.

Zer landu zen ikerketan parte hartu zuten emakumeekin? Sareen mapa egin zen, honakoa aztertuta:

- Zer motatako harremana sortzen zen emakume horien artean?
- Zein elementuren inguruan gorpuzten ziren solidaritateko eta babeseko sare horiek? Zein gai, kezka edo alorren inguruan elkartzen edo osatzen ziren sare horiek?
- Errealitatea eta egunerokotasuna aztertuta, nola osatzen zituzten sareak? Non? Adibidez, arazo bat (osasuneko, lanekoa, familiakoa...) konpontzeko orduan, nora jotzen zuten edo noren babesa jasotzen zuten?

Partaidetzarako bitarteko esfera edo espazioak edo “zubiak”

Emakume horiekin batera, udalerrira mapatzeko saiakera egin zen, sare horiek fisikoki non osatzen ziren behatuta. Sareen analisi horrekin, oso informazio bisua-

la lortu genuen. Gauzak horrela, mapaketa aztertuta, deskubritu genuen udalerrietan emakumeak elkartzen ziren “zubi” espazioak agertzen zirela; bertan, babes, lankidetzeta eta laguntzarako estrategiak sortzen zituzten eta ekimenak gauzatzen zituzten. Zubi-espazioak, adibidez:

- Eskoletako ingurua.
- Udal liburutegiak.
- Parke publikoak.
- Plazak, ibiltokiak eta etorbideak.
- Tabernak eta kafetegiak.
- Auzoetako gizarte zentroak.
- Helduen Prestakuntzarako zentroak.
- Kirol zentroak.
- Etab.

Espazio horien inguruan, hiria eta egunerokotasuna eraikitzen ziren.

Nola sustatu emakumeen partaidetza tokiko esparruan?

Egindako ikerketaren ondoren, lau alderdi gako proposatzen dira arreta eskaintzeko:

- Partaidetza kontzeptua definitzea. Partaidetza definitu eta kontzeptualizatzea, emakumeen esperientziatik eta errealitatetik abiatuta. Nola definitzen dute eurek partaidetza?
- Ekimenak bultzatzea. Tokiko bizitzaren eguneroko alderdiari erantzuten dioten partaidetza-proposamenak egitea.
- Emakumeak mugitu ohi diren espazioetan, ekintza eta estrategiak proposatzea. Zubi-espazioak partaidetzarako espazio gisa erabiltzeko lokalak bilatu, bultzatu eta sustatzea.
- Sareak sustatzea. Pertsonen arteko sareak sustatzen dituzten gune edo espazioak sortu, bultzatu eta/edo finkatzea.

Azken gogoetak

Generoaren ikuspegitik:

- Publikoaren eta pribatuaren dikotomia auzitan jartzea. Esparru pribatua balioan jartzeko garrantzia azpimarratzea eta esparru publikoaren etxekotasuna aldarrikatzea, ez desira gisa, baizik eta ekonomian, politikan, kulturen eta beste arlo askotan dagoen errealitate gisa. Esparru pribatuaren eta publikoaren eta etxeko esparruaren eta esparru sozialaren artean mugak apurtzeko beharra.
- Sareak aztertuta, bizitza publikoan esparru pribatua existitzen dela frogatu daiteke. Horregatik, partaidetza asoziazionismo formalaren ikuspegitik soilik aztertzeak alderdirik biziena eta dinamikoena ezkutatzea dakar.
- Gai honi ikuspegi zabal, ireki eta sortzailetik ekiteko espazio eta une zehatzak sortzea, emakumeek (gazteak, nagusiak, etorkinak...) inguru bakoitzean bizi duten errealitatea kontuan hartuta, gainera.
- Bitarteko tokiko espazioei dagokien arreta eskaintzea, horien egokitzapena bultzatzeko eta soziabilitaterako espazio gisa duten balioa eta potentzialtasuna indartzea.

Emakumeen partaidetza, erabakigune politikoetan

Belia Concha Alburquerque. Cutivalú irratia-aren zuzendaria

“Demokrazia eta herritartasuna, gaur egun ezagutzen eta gauzitzen ditugun moduan, ez ziren sortu hagatxo magiko baten ukituaz, ezta Boticelliren Venusen jaiotza koadroan bezala ere, aratz eta kurba perfektuez horniturik. Sortu ziren, eta sortzen jarraitzen dute, zapalkuntzen, ekaitzen, iraganeko aztikerien eta oinordekotzan jasotzen dugun historiaren odolaz eta lohiaz orbanduta”

Bruno Revesz, CIPCAko ikertzailea

Piurako eskualdean (Peru), emakumeen partaidetza lantzen hasi ziren eta bide hori lantzen jarraitzen dute, eta, bide horri ekiteko, funtsezkoa izan zen eskualdearen garapena genero berdintasunaren ikuspegitik bultzatzeko konpromisoa duten herritarren begirada arretatsua, herritarrek gizarte zibilaren eta Estatuaren lan bateratu arduratsuari jarraipen zorrotza egitea, genero arrailak murrizteko xedez betiere.

Nazioan eta eskualdean indarrean dagoen legedia gorabehera, Estatuaren eta gizarte zibilaren lan bateratuan egindako aurrerapenak gorabehera eta agenda programatikoa gorabehera, ordea, mantsoa gertatzen ari da genero ikuspegia eskualdeko eta tokiko politika publikoen kudeaketan zeharlerro gisa txertatzeko prozesua. Prozesu mantsoa gertatzen ari da, halaber, genero ikuspegia eta politika beren lan ildoetan txertaturik ez duten gizarte erakundeetan. Eta, gure ustez, ezjakintasuna da genero politikak diseinatzeko eta inplementatzeko eragozpen nagusia; alegia, diseinu eta inplementazio hori nola gauzatu ez jakitea.

Gure eskualdean, ageriko errealitatea da, oraindik ere, genero berdintasunik eza, eta horren erakusgarri dira identifikatuta dauzkagun gizarte arrailak. Arraila horiek erakusten dutenez, hutsune handiak daude emakumeen eskubideak gizonen eskubideen maila berean jartzeko bidea emango duten politiken inplementazioan. Egoera horrek, jakina, ahultasuna eta gizarte bazterketa dakarkie emakumeei, eta desabantailan jartzen ditu politika publikoek beren behar eta eskariei erantzuteko eskaintzen dituen zerbitzueterako sarbideari eta erabilerari dagokienez.

Egoera horren abiapuntua da politika publikoak diseinatzean ez dela kontuan hartzen genero ikuspegia; izan ere, horrek ikusezin egiten ditu emakumeak garapenaren eta beren ahalmenak eta potentzialtasunak haren zerbitzura ezartzeko politikako eskakizunen eragile gisa.

Aurrekariak

Baina dena ez da negatiboa. Aurrerapen jakingarriak ere izan dira azken urteetan. 1995ean, Beijingo Plataformaren akordioak sinatu zituen Peruk; sinadura harekin, genero arrailak eta sexuagatiko diskriminazio oro ezabatzeko konpromisoa adierazi zuen. Beijingo Plataformak politika publikoetan genero ikuspegia kontuan hartzea eskatu zuen, eta garrantzi handiko urratsa izan zen genero berdintasuna lortzeko oztopoak eta eragozpenak gainditzea xede zuten nazioarteko konpromisoei dagokionez.

Bide horretan, Emakumearen eta Gizarte Garapenaren Ministerioa (MIMDES) sortzea izan zen lehen mugarria. Gaiari buruzko erakunde gidari gisa eratu zen, honako egiteko hau bere gain harturik: *“gizarte eta giza garapeneko politikak diseinatzea, proposatzea eta gauzatzea, genero berdintasuna eta emakumeen, haurren, adinekoen eta pobrezian edo muturreko pobrezian bizi diren taldeen, diskriminatuen eta baztertuen aukera berdintasuna sustatuz”*. Hortik abiatuta, emakumeen garapenerako politika nazional jakin batzuk garatu eta neurri zehatzak sustatu dira.

Gaur egun, Emakumearen eta Talde Ahulen Ministerioak (MIMP, MIMDES ohia) darama emakumeari eta talde ahulei buruzko politika nazionalen eta sektore politiken gidaritzza, eta haren eskumena da genero ikuspegia politika publikoetan zeharlerro modura txertatzea. Era berean, Garapen eta Gizarteratze Ministerioa

(MIDIS) sortu da; erakunde horren ardura da gizarteratze arloa zuzentzea, MIMDES ohiarekin batera.

Bigarren mugari garrantzizkoa zenbait politika publikoren formulazioa izan da, hala nola Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Planarena (PIO). 2000. urtetik 2005. urtera, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lehen Plan Nazionala egon zen indarrean. 2006-2010 bitartean Bigarren Plana gauzatu zen; hain zuzen ere, honako ministerio hauek eman zioten onespena hura onartzeko dekretuari: PCM, MIMDES, MINJUS, MININTER, MTPE, MEF, MINAG, MINEDU eta MTC. Gaur egun, Genero Berdintasunerako 2012-2017 Plan Nazionala dago indarrean (PLANIG).

Azpimarratzekoa da PLANIG plan nazionala lantzeko aintzat hartu direla hainbat erakunde, mugimendu eta antolakunderen ekarpenak, etxeko langileenak, esate baterako.

Hirugarren mugari erabakigarria 28983 Legea onartzea izan da. Gizonen eta Emakumeen Aukera Berdintasunerako Legeak (LIO, 2007ko martxoaren 16a) helburu hau du: *“nazio, eskualde eta tokiko esparruetan arauak, erakundeak eta politika publikoak ezartzea emakumeek eta gizonek bermatuta izan dezaten berdintasun, duintasun, garapen aske, ongizate eta autonomia eskubideak gauzatzeko aukera, beren bizitza publiko nahiz pribatuan inolako diskriminaziorik jasan gabe eta erabateko berdintasuneranzko bidean”*. Lege hori inplementatzeko mekanismoa da, besteak beste, PLANIG 2012-2017 plana; eta, ildo horretatik, genero berdintasunaren instituzionalizazioa zuzentzeko politika nazionala da, nahitaez bete beharrekoa, gainera. Estatuaren zereginari dagokionez, 4. artikuluan esaten du beharrezkoa dela genero ikuspegia aintzat hartuko duten politika publikoak inplementatzea.

Eskualde mailari begiratuta, eskualdeko gobernuak aintzat hartzen ditu genero berdintasuna eta aukera berdintasuna bere kudeaketan, eta gai horien aldeko ordenantza eta arau espezifikoen islatzen da kezka hori. Baina ez du mekanismo instituzionalik horien jarraipen, gidarritza, ebaluazio eta betetze maila zaintzeko. Era berean, ez da aurrekonturik ezarri gaian espezializatutako langile egokiak kontratatzeko ere.

2008an, MIMDESek eta eskualdeko gobernuak akta bidezko akordio bat sinatu zuten, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren laguntzaz

(AECID). Honako proiektu hau implementatzea zen akordio haren xedea: “Apoyo para la implementación del Plan Nacional de Igualdad de oportunidades y plan Nacional contra la Violencia hacia la Mujer” (Aukera Berdintasunerako Plan Nazionala eta Emakumearen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Plan Nazionala implementatzeko laguntza). Eta esparru horretan, Genero Behatokia abian jarri zen, bi gai horien garrantzia azpimarratzeko. Haren esku-hartze aipagarria Aukera Berdintasunerako Eskualdeko Plana-PRIO formulatzea izan zen, emakumearen kontrako indarkeriari buruzko estatistika batzuk zabaltzeaz gainera. Bulego horrek kanpoko laguntza ekonomikoa amaitu arte jardun zuen lanean; handik aurrera, gizarte garapenaren kudeaketari dagokion beste edozein ekimenen mailan gelditu zen. Zoritxarrez, ez du aurrekontu propiorik, ezta identifikatu eta lehenetsitako genero arrailei buruzko agenda programatikorik ere.

2008az geroztik, hainbat funtzio eskualdatu zaizkie eskualde gobernuei Gizarte Garapena eta Aukera Berdintasuna arloan (Eskualde Gobernuen Lege Organikoa, 60. artikulua). Lege horren arabera, hain zuzen ere, eskualde gobernuaren funtzioa da *“gizarte garapenari eta aukera berdintasunari buruzko bere eskumeneko politikak formulatzea, onartzea eta ebaluatzea, gobernu nazionalaren politika orokorrarekin, sektore planekin eta tokiko gobernuen programekin bat etorrira”*. Ildo horretan, Piurako eskualde kudeaketan genero ikuspegia zeharlerro gisa txertatzeko Laguntza Teknikoko eta Gaitasunen Garapenerako Plan bat inplementatu du MIMPEk.

Piuran, 2008az geroztik indarrean dago Aukera Berdintasunerako Eskualde Plana (PRIO-2008-2012). Plan hori eskualde ordenantza baten bidez onartu zen, baina ez da prozesu sistematiko bat bideratu hura inplementatzeko eta eskualdeko arrailen araberrako ebaluazioa egiteko.

2011ko Emakumearen VII. Eskualde Biltzarrean, bederatzi genero arraila identifikatu eta lehenetsi ziren, eta horiek orientatzen dute Estatuaren eta gizarte zibilarren esku-hartzea arrailak gainditzeari begira.

Genero arraila hauek onartu ziren, hain zuzen:

1. Amen hilkortasun tasa handia eskualdean, bereziki Piurako mendialdeko probintzietan.
2. Nerabeen haurdunaldi tasa altua.
3. Emakumearen kontrako indarkeriaren nabarmentasuna.

4. Genero berdintasunik eza oinarrizko hezkuntzan (ikasketetarako sarbidean, jarraipenean eta amaieran).
5. Analfabetismo tasa altua; altuagoa emakumeen artean, gizonezkoen artean baino.
6. Lan merkatutarako sarbide mugatua, emakumeei dagokienez.
7. Genero berdintasunik eza gizonen eta emakumeen partaidetzan, eskualdeko eta tokiko garapen prozesuetan.
8. Emakumeen partaidetza mugatua baliabide naturalen jabetzan eta erabileran.
9. Genero ikuspegia zeharlerro modura txertatzeko eskualde erakundetze ahula.

Eskualdean identifikatu eta lehenetsitako genero arraila horiek jarraibide bat markatzen dute eskualdeko eta tokiko gobernuek politikak sortzeko eta inplementatzeko, baita gizarte zibilak politika horien bilakaeraren eragin politikoa izateko eta haien zaintza gauzatzeko ere, bereziki ekitatea eta genero berdintasuna sustatzen duten erakunde eta kolektiboek dagokienez.

Hortaz, esan daiteke Piurako eskualdean badaudela genero berdintasunari loturiko proposamenak indarrean jartzeko araudiak, eta kudeaketa publikoan ikuspegi hori zeharlerro modura txertatzeko eta instituzionalizatzeko baldintzak bermatzen dituztela araudi horiek.

Emakumeen herri partaidetza

Hizpide dugun testuinguruan alderdi politikorik ez dagoenez, garrantzi handiagoa hartzen du gizarte zibil antolatutako Estatuarekiko solaskide gisa duen funtzioak, emakumeei eta genero berdintasunari dagozkion gaitetan, eta lorpen nabariagoak izan ditu. Hain zuzen ere, talde eta mahai tematikoen inguruan antolatutako emakumeak eta, batez ere, gobernu kanpoko erakundeetako emakumeak dira eskualdean generoari loturiko proposamenak aurrera ateratzeko lan egiten duten eragile nagusiak.

Talde horiek gizarte zibilaren eta agintaren arteko hainbat koordinazio gune eta kontzertazio guneetan parte hartzen dute; hala nola Eskualdeko Koordinazio Kontseiluan (CCR), Tokiko Koordinazio Kontseiluetan (CCL), Eragile Partaideen Batzarrean eta

Partaidetza Aurrekontuaren Zaintza Batzordean, eskualdeko zenbait sektore kontseilutan edo kontseilu tematikotan –adibidez, nekazaritzakoan, hezkuntzakoan ingurumenekoan, emakumearenean, etab.–. Partaidetza horren bidez, erabakiak demokratizatzea lortu nahi da; partaidetza bidez eratutako garapen planekin bat etorriko diren politika publikoak proposatzen eta horiek inplementatzen esku hartzea, emakumeen partaidetza bultzatzea eta instantzia horiek bultzatutako prozesuetan genero ikuspegia zeharlerro modura txerta dadin sustatu nahi da.

Hala ere, emakumeen partaidetza %25 eta %30 bitartekoa da.

Partaidetza gunea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
PA eragile partaideak	35	47	82
PA Zaintza eta Kontrolerako Batzordea	2	4	6
COPARE	11	33	44
CORDA	0	45	45
Eskualdeko Koordinazio Kontseilua - CCR	2	12	14
Guztira	50	141	191
	%26	% 74	% 100

Emakumeek gune horietan duten partaidetza nabarmen baldintzatu ohi du haien egoera ekonomikoak; izan ere, gune horietan parte hartzeak gastuak dakarzkie (joan-etorriak, otorduak, etab.). Gainera, eskualde erakundeen ordezkari izanik, oro har, erakunde horietako kideek gizonak aukeratu ohi dituzte instantzia horietarako.

Emakumeek komunitatearen hezkuntzarekin zerikusia duten jardueretan parte hartzen dute, oro har –adibidez, Wawa Wasin–, edo elikadura programetan, hala nola Qali warma programan eta esne edalontzien batzordeetan, Guraso Elkartean (puntuazioa) –AMAPAFAS– etab.; baita osasunaren esparruan ere, osasuna sustatzen, etab. Sistema patriarkalak genero femeninoari egotzen dion esparruko jarduerak, guztiak ere: besteen zaintza, osasuna eta haurren hezkuntza, etab. Era berean, erlijio erakundeetan presentzia handia dute emakumeek.

Bestalde, Piurako eskualdean, aipatzekoak dira emakume ekoizleen elkartek. Hala ere, emakume asko behar ekonomikoan bizi arren eta eskualdean ekoizpen sarea sendotzeko premia bizia izan arren, ez dago behar adina ekoizle elkarterik.

Batetik, emakumeek muga handiak dituztelako baliabideen kontrola berengana-tzeko. Baina, bestetik, muga ekonomiko handiak dituztelako eta gaitze programa gutxi jasotzen dituztelako ekoizpen eta antolaketa gaiei buruz, ez soilik Estatuaren aldetik, baita haiekin diharduten GKE batzuen aldetik ere.

Nolabait esateko, emakume ekoizleen elkarteek aurrerapauso erabakigarria egin dute, ohiko erreprodukzio eginkizun tradizionaletik at atera baitira eta po-brezia gainditzeko alternatiba estrategikoagoak bere eginez azalera ateratzea lortu baitute, Estatuaren gizarte programen babesaren zain gelditu gabe. Hala ere, erakunde horietako gehienek ez dituzte genero berdintasuneko politikak eta interesak xedetzat, eta ezinbestekoa litzateke bide horri heldzea, emakumeek independentzia eta autonomia pertsonal eta soziala lortzeko. Hala, erakunde horietako emakume askok mendekotasunezko harremana dute familiarekin eta komunitatearekin. Bestalde, ekoizle elkarteek ez dute, oro har, pobreziatik irte-teko behar adinako ekoizpenik eta irabazirik; familiaren elikadura segurtatzera bideratutako lana egiten dute, gutxi asko.

Piuran, badira, halaber, emakumeen beharrak eta interes estrategikoak hobe-tzearen alde lan egiten duten emakume erakundeak (eta erakunde misto ba-tzuk). Erakunde horietako batzuk, ordea, aldian-aldian elkartzen dira, ez dute lan iraunkorrik egiten eta funtzionamendu ahula dute. Antolaketa kaskarra eta zatike-ta dira beren ezaugarri nagusietakoak. Eta horietako batzuk agenda bateratu ba-ten inguruan egituratuta badaude ere, ez dute partaidetza nabarmenik erabakigu-neetan, eta horrek eragotzi egiten du beren agenda Estatuaren agendan sartzea.

Beste batzuk, muga horiek guztiz gainditu ez arren, urteak daramatzate beren komunitateetan sustapen lanean, eta lortu dute nolabaiteko aitortza sozial eta politikoa; are gehiago, garrantzi handiko kontzertazio guneetan sartuta daude. Adibidez: emakumearen eskualde kontseiluan, gobernagarritasunaren aldeko kolektiboan, pobrezia-aren kontrako borrokarako mahaian, tokiko koordinazio kontseilu batzuetan, Eskualdeko Koordinazio Kontseiluan, emakumeei eragiten dieten gaiak lantzen dituzten kontzertazio guneetan, etab.

Erakunde horiek sendotu egin dute emakumeen eskubideen eta genero berdin-tasunaren aldeko lana, eta solaskide egokiak dira eskualdeko gobernazioarekin, eskualde kontseiluarekin, eskualde plangintzako zentroarekin, erabakiguneekin jarduteko, emakumearen eta genero berdintasunaren aldeko tokiko eta eskual-deko politika publikoetan. Betiere, GKEen babesarekin.

GKEak garrantzizko eragileak dira garapen iraunkor eta humanoagoa lortzeko politika publikoen sorreran. Halako garrantzia dute GKEek erakundeen ahalduzko prozesuetan, oro har, eta emakume erakundeetan, bereziki, non esan baitaiteke, Piuran, behintzat, GKEek presentzia nabarmena izan dutela eta gaur egun dutela tokiko eta eskualdeko politikan eragina duten proposamenak lantzeko prozesuetan, partaidetza prozesuetan eta eragiletza politikoan.

Emakumeen partaidetza politikoa

Kuoten Legea ezartzea gobernuaren ekintza positiboa izan da; lege horren bidez, emakumeek kargu politikoetan parte har dezaten sustatu nahi da, erabakigune politikoetan gizonen eta emakumeen artean berdintasun handiagoa izan dadin epe laburrera begira. Kuoten Legea ekintza iragankor eta aldi baterakoa da, baina beharrezkoa da era horretako lege bat indarrean egotea (ehunekoak aldatuta, agian, besteak beste), harik eta desagertzen diren arte emakumeek politikan gizonen aukera berdinetan parte har dezaten eragozten duten baldintza sozial, kultural, ekonomiko, politiko eta abarrak.

Argentina izan zen Latinoamerikan Kuoten Legea onartu zuen lehen herrialdea (1991). Perun, 1997an onartu zuten Kuoten Legea: %25eko ehuneko ezarri zuten kongresurako eta udaletarako hautagai zerrendetako partaidetza femininorako. 2000. urtean, legea aldatu zen: hain zuzen ere, %30era igo zen ehuneko, kongresuko zerrendetarako. 2002. urtean, %30eko kuota ezarri zuten Alderdien Legean ere; hala, alderdiek kuota hori kontuan hartu behar dute buruzagiak aukeratzeko proposamenetan, baita alderdi barruan aukeratzen diren gobernu kargu politikoetarako hautagaiak aukeratzeko proposamenetan ere.

Peruko Kuoten Legearen bidez onartutako ordezkari proportzionalaren sistemari esker, emakumeek presentzia handiagoa eta iraunkorragoa dute aginte politikoan. Nolanahi ere, ordezkari proportzionalaren sistema indarrean egon arren, %30eko ehuneko nabarmen jaitsi ohi da emaitzetan, ordezkari politikoari dagokionez: izan ere, zerrendetarako soilik aurreikusita dago kuota, ez ordezkari politiko hautetsietarako.


Adibidez, eskualdeko lehendakarietarako eta probintzia eta barrutietako udal alkatetzetarako azken hauteskundeetan, penagarriak izan ziren emaitzak: 195 municipalitate probintzial dira herrialdean, guztira, eta emakume bakar bat ere

ez zuten aukeratu alkate. 1.828 hautagai aurkeztu ziren alkatetza kargurako, 146 emakume baino ez horien artean.

Probintziako Kontzejua: emakumezko hautagaiak eta hautetsiak, Peru 2002-2014		
Hauteskunde urtea	Emakumezko hautagaien %	Emakumezko hautetsien %
1995	11,0	8,3
1998	38,0	25,0
2002	38,7	23,4
2006	40,9	25,0
2010	42,1	23,9
2014	42,6	25,6


Hautagai gisa aurkezten diren emakumeen eta emakumeek instantzia politiko guztietan oro har duten ordezkartzaren arteko arrailaren arrazoietakoa bat da gaur egungo Kuoten Legea ez zaiela aplikatzen zerrendaburuei; alegia, ez da aplikatzen eskualdeko presidenteekin eta alkateekin. Eta ez da aurreikusi hautagai zerrendetan gizonak eta emakumeak txandaka agertzeko aukera ere; hau da, hautesleek ez dituzte ikusten emakume bat eta gizon bat, txandaka, zerrendan.

Hori dela eta, eskualdeko presidenteen artean, 24tik bakarra da emakumea.



Zerrendetan txandakakotasuna ezartzea da funtsezko baldintzetako bat emakumeen partaidetza parekideagoa bermatzeko; izan ere, gaur egun errespetatzen

da indarrean dagoen araua, baina zerrenden azken tokietan agertzen dira emakumeak, grafikoak erakusten duen moduan.



Iturria: INFOgob-JNE (2015). Egileak egina.

Kuoten Legea garrantzi handiko ekimen politikoa izan da, bide eman baitu emakumeek espazio horietan partaidetza altuagoa izateko; baina emakumeak kargu politikoetan aritzea ez dakar, berez, emakumeek arlo publikoan eta politikoan ordezkartza nabarmenagoa izateko bermea; ezta genero berdintasunaren aldeko kudeaketa publikoaren bermea ere, edo lehenetsitako genero arrailak murriztekoa: horretarako, politika egiteko modua aldatu beharko da eta giza eta gizarte garapena sustatzea hartu beharko du xede; eta orobat beharko da emaitzetan oinarrituriko eta ikuspegi inklusiboa eta generokoa kontuan hartuko dituen plangintza estrategiko bat, artikulazio eta kontzertazioa estrategien inplementazioa. Horrela, genero berdintasunerako politika publikoak diseinatzeke eta gauzatzeke betebeharra eta ahalmena izan beharko lukete kargu politikoren bat duten edo Estatuan funtzioak betetzen dituzten eta erabakiguneetan parte hartzen duten emakumeek eta gizonek.

Horregatik guztiagatik, funtsezkoa da genero ekitatea lortzeko proposamenak formulatzeko eta aurkezteko urratsak egitea eskualde garapenerako prozesuetan. Alderdi horri ez baitzaio behar adinako garrantzirik eman eskualde kudeaketan; hain zuzen ere, hazkunde ekonomikoaren eta azpiegitura obren ikuspegia aintzat hartzen duen kudeaketa instituzionalizatu da, giza garapenari, genero ekitateari eta aukera berdintasunari begirako politiken kaltean.

Egiaztapenak...

- Herri partaidetzako espazioek genero maskulinoa dute.
- Emakumeen partaidetzaren ehunekoak Kuoten Legeak ezarritako muga daude, edo mugako %30 horretatik behera.
- Estatuak eta GKE batzuek sustatzen dituzten garapen prozesuetan genero ikuspegia ez txertatzearen ondorioz, emakumeek partaidetza mugatua dute haien formazio espazioetan.
- Emakumeen formazio ahula dela eta, ez dute proposamenak eginez parte hartzen oro har.
- Genero ikuspegia ez da zeharlerro gisa finkatu gainerako kontzertazio espazioetan, hala nola Nekazaritza Garapeneko Eskualde Kontseiluan, Osasunaren Eskualde Kontseiluan, Enpresa Mikro eta Txikien Eskualde Kontseiluan, haurren eta nerabeen arretarako eskualde kontseiluan, ezintasuna duten pertsonen arretarako eskualde kontseiluan eta eskualde gobernadorea buru duen eskualde kontseiluan bertan.
- Funtzionarioek ez dakite zer teknika erabili genero ikuspegia aintzat hartzen duten politika publikoen baitan eskaintzen diren zerbitzuetan genero berdintasunaren eskubidea bermatzeko, berdintasunik eza arintzeari begira.

Horretan guztian oinarrituta, emakumeek parte hartzeko muga nagusi hauek daudela ondorioztatu dugu:

Emakumeen partaidetzaren mugak

Testuinguru berri honetan, funtsezkoa da emakumeek ongi ezagutzea Partaidetza Aurrekontua osatzeko prozesuen nondik norakoak -eta horren inguruan zer

eragin mekanismo dauden-, eta jakitea nola parte hartu Tokiko Koordinazio Kontseiluetan eta Herri Zaintzako Batzordeetan. Era berean, funtsezkoa da emakumeek Eskualde Garapenerako Plan Hitzartua-PDRC eguneratzeko prozesuan parte hartzea, beren ikuspegi eta behar estrategikoetatik identifikatzeko arazoak eta formulatzeko horiei erantzuteko proposamenak.

Modu artikulatuan eta agenda bateratu batean oinarriturik parte hartu beharko lukete prozesu eta gune horietan, gainera; eta, tokiko eta eskualdeko politika publikoaren onuradun soil gisa baino gehiago, beren herritartasuna gauzatzen diharduten eragile gisa agertu behar dute, genero ikuspegia aintzat hartuko duten politika publikoak sustatuz tokiko eta eskualdeko espazioan.

Horretarako, zenbait eragozpeni aurre egin eta gainditu beharko dituzte:

1. Genero rolen araberrako gizarte jarrerak eta aurreiritziak eragiten dituzten rolak eta estereotipoak.
 - Rolen gainkarga. Emakumeek hartzen dute beren gain erreproduzioaren eginkizun guztia edo gehiena: garbiketa, lisatzea, sukaldea, seme-alaben zaintza; familia ekonomiari laguntzea eta, aldi berean, oinarriko erakundeetan parte hartzea. Horrela, gizonak denbora gehiago dute antolaketa lanez arduratzeko.
 - Ez dute izaten bikotekidearen baimen eta onespenik karguren bat hartzeko edo parte hartzeko garaian.
 - Muga handiak dituzte aukerei, autonomiari eta beren bizitzan gaineko erabakiei dagokienez, emakumeak egin dezakeenaren eta egin ezin duenaren gaineko debekuak eta egozpenak direla eta.
2. Gizarte jarduera eta baldintza diskriminatzailerak, arlo publikoan nahiz pribatuan; horrek kalte egiten dio emakumeen autoestimari, eta gizarte pretsioa dakarkie (familia barruan, kasu askotan), edo gutxiespena...
 - Autoestima apalaren ondorioz –bazterketak eta matxismoak eragina nagusiki–, emakumeek muga handiak dituzte antolakundeetan bertan eta komunitatean lidergoa beren gain hartzeko.
3. Formazio politikorako aukera berdintasunik eza gizonen eta emakumeen artean.

- Ezagutza urria dute Giza Eskubideei buruz –bereziki, emakumeen eskubi-deei buruz–; eta politika publikoei, giza garapenari, gobernagarritasunari, deszentralizazioari eta abarri buruz. Era berean, herri partaidetzan eta partaidetza politikoan esperientzia gutxi dutenez, ahalmen mugatua dute emakumeei berei dagozkien gaietan politikoki eragiteko.

4. Legedi, mekanismo eta egitura instituzional diskriminatzaileak.

- Eskualde gobernuaren azken buruko kudeaketan, aurrerapenak egin dira zenbait politika publikoren definizioan, emakumeek Estatuaren erabakietan parte har dezaten sustatzeari loturik. Hala ere, ez da halakorik ageri gobernuaren planetan, ezta eskualde gobernuaren kudeaketan ere. Gizarte garapenaren gerentzia da genero arrailak murrizteko ardura duen unitate organiko bakarra; beste gerentzia batzuetan ez dute ardura hori kontuan hartzen, adibidez, garapen ekonomikoen kudeaketan, baliabide naturalen kudeaketan, planeamendu eta aurrekontuaren kudeaketan eta gainerakoetan.

5. Emakumeen muga nagusietakoak pobrezia eta lan eta baliabide falta dira. Emakumearen Ministerioaren arabera, pobrezia feminizazioak indarrean jarraituko du, eta, are gehiago, larritu egingo da 2021erako.

- Arazoa grafikoki adierazteko, Demografia eta Familia Osasunaren Inkesta-ENDES 2103 txosteneko eta MIMPk emandako zenbait datu erabiliko ditugu.

- Piurako eskualdean, 2014ko **nerabeen haurdunaldiaren** indizearen arabera, 100 emakume haurdunetik 18 ziren nerabeak. 2014an, Sapillica barrutian (Ayabaca) 38 emakume haurdun zeuden, horietako 12, nerabeak (12-16 urte bitartekoak).

- 2014an, 28 ama hil ziren Piurako eskualdean.

- 2013an, %7,6ko analfabetismo tasa zegoen; askoz handiagoa zen analfabetismoa emakumeen artean (%70) gizonen artean baino (%30).

- **Emakumearen kontrako biolentziaren** intzidentzia handia. Emakumeen %71,5ek jasan du noizbait nolabaiteko biolentzia senarraren edo bikotekidearen eskutik. Biolentzia psikologikoa edo/eta ahozkoa %67,5ekoa da, eta fisikoa, %35,7koa.

- Latinoamerika eta Kariberako Ekonomia Batzordearen arabera (Cepal), 83 feminizidio izan dira 2013an; bigarren herrialdea da feminizidioen zerrendan,

Kolonbiaren atzetik. Ministerio Publikoaren Kriminalitatearen Behatokiak emandako estatistiken arabera, 2013an 50 feminizidio izan ziren. Eta gora egingo du kopuru horrek, 2014-2020ko estimazioaren arabera.

- Azken hamar urteetan, Piurako departamentuan, hileko soldatan %39,6ko aldea zegoen gizonen eta emakumeen artean. 2004tik 2013ra, %2,5 handitu zen diru sarreren arteko arraila.

6. Generoagatiko jazarpen politikoa. Jazarpen politikoa deritzo emakume agintari, hautetsi, hautagai edo ordezkarien eskubide politikoak mugatzeko, ezabatzeko, urratzeko, murrizteko, indargabetzeko edo kaltetzeko egindako ekintza edo ekintzen multzoari.

- Agintean dauden 5 emakumetik 2k jasan dute jazarpen politikoa.

- Jazarpen kasuen %71n, eskualde presidenteak edo alkateak izan dira jazarleak; %48n, eskualde kontseilariak edo zuzendariak; %4n eskualde gobernuko edo munizipalitateko langileak; %24n prentsa; %14n herritar talde edo sektore bat, eta %4n, familia.

- Jazarpena jasan duten emakumeen %5ek tratu txar fisikoak izan dituzte, eta %57k, tratu txar psikologikoak; %10ek jasan dute sexu jazarpenera; %14k sexuagatiko irainak; %24k ondareagatiko irainak; %19k esparru intelektualeko irainak; %48k bitarteko administratiboen bidezko jazarpenera; %14k kontrol ekonomikoaren bidezkoa; eta %10ek lege errekurtsuen bidezko mehatxua.

Faktore horiek pobrezia handiagoa eragiten diete emakumeei eta mugatu egiten dute emakumeek erabakigune politikoetan eta kargu publikoetan duten partaidetza. Era berean, zaildu egiten dute emakumeek genero berdintasuneko eta emakume eta gizonen aukera berdintasuneko politikak diseinatzen eta inplementatzen parte hartzea.

Era berean, emakumeen gizarte ordezkariak ahula eragiten du; lidergo berri-
tu gabeen ondorioz, emakume erakundeek demokratizazioak urratu egiten du proposamenen zilegitasuna eta, hortaz, genero ikuspegia aintzat hartzen duten politiken gaineko erabakiak hartzeko intzidentzia maila. Horrek, aldi berean, herrialdea deszentralizatzeke abian diren prozesuei atxikitako genero agendaren kudeaketa kaskarra dakar (partaidetza espazioak, emaitzetan oinarrituriko aurrekontu kudeaketa, CCL, etab.).

Estatuari dagokionez, eragozpen edo kontrako baldintza hauek ditu genero berdintasuna aintzat hartuko duen garapen inklusibo baten garapena kudeatzeko:

- Politika publikoak erabakitzen dituztenek borondate politiko urria dute benetako gizarte inklusioaren eta ekitatearen aldeko neurri eraginkorrak hartzeko.
- Araudiaren ezagutza falta eta generoaren auziari heltzeko interesik eza. Tokiko gobernuetako eta eskualde gobernuko talde teknikoek ez dute ezagutzen lege esparrua eta ez zaie egokia iruditzen beren funtzio eta erantzukizunetatik abiatuta genero ikuspegia zeharlerro modura txertatzeko eginkizuna hartzea; beraientzat, errazagoa da emakumeei dagozkien arazoei buruzko unean uneko jarduerak egitea, oso esanguratsuak izan ez arren (osasun kanpainak, amaren eguna, emakumearen egunean bandera jasotzea, etab.).
- Tresna/prozedura kaskarrak genero ikuspegia politika publikoen kudeaketan txertatzeko. Araua ezarrita dago, baina ez dago hura garatzeko beharrezko tresnarik, hala nola funtzionarioek beren zerbitzu publikoan genero ikuspegia zeharlerro gisa txertatzeko protokoloak edo bideorriak.
- Ez dago sexuka bereizitako informaziorik emakumeen oinarritzko eskubideei buruz; hori dela eta, ez dira eragile gisa ageri, politikako neurrien onuradun soil gisa baizik. Faktore horrek zaildu egiten ditu genero arrailen murrizketaren jarraipena eta xede horrekin inplementatutako tresnen egokitasunaren ebaluazioa.
- Lege esparruaren ezagutzarik eza, genero berdintasunari buruzko inbertsio publikoko prozesuekin lotuta. Indarrean dagoen araudiak genero ikuspegia aurrekontu prozesuetan txertatzeko bidea ematen du, baina, gaur egungo testuinguruan, funtzionario publikoek ez dute araudi horren behar adinako ezagutzarik, informazio hori ez delako balioesten kudeaketa publikoa gauzatzeko garaian.

Ondorioak

- Herrialdea deszentralizatzeko prozesuari esker, eskualdean lehenetsitako genero arrailekin lotura duten sektore publikoak (osasuna, hezkuntza, nekazaritza, ekoizpena, lana, COFOPRI) eskualde gobernuaren eskumenekoak dira orain, politika nazionalaren barruan betiere; baina politika nazional horrek ez du artikulaziorik eta loturarik eskualde politikekin. Bestalde, gizarte zibilak ez duenez eskumen horien zaintzarako ekimen eraginkorrik,

agintariek ez dute gaia agendan sartzeko eta hari buruzko erabaki politikoak hartzeko interesik.

- Genero ikuspegia gizon eta emakume guztiei begirako eskualde kudeaketa bermatzeko tresna gisa zeharlerro bihurtzeko prozesua hastapenetan da. Hala ere, eskualde politika erabakitzen dutenen konpromiso instituzionalaren mende dago hura aurrera ateratzea; konpromisorik ezean, espero baino gehiago luzatuko da prozesu hori. Eta hala gerta ez dadin, ezinbestekoa izango da gizarte zibilak arretaz begiratzea eta bideorri argi eta hitzartu bati jarraitzea, prozesu horiekin bat egiteko eta haien inplementazioan eta jarraitpenean eragiteko.
- Herrialdea deszentralizatzeko prozesuaren baitan eta emaitzetan oinarrituriko aurrekontu kudeaketaren esparruan, PPR (emaitzetan oinarrituriko aurrekontu programa) nazionaleri begirako proiektuak gauzatzen ari dira genero arrailekin loturik, bereziki amen hilkortasunaren arrailarekin loturik; ildo horri dagokionez, beharrezkoa da genero arraila eta dagokion aurrekontu programa estuago artikulatzea, programa hori exekutatzeko gobernu estrategia identifikatzea eta ematen diren zerbitzu publikoak genero arrailak arintzeko lagunak izango direla bermatzea.
- Artikulazio falta nabarmena dago sektore politikan dihardutenen eta eskualde gobernuaren artean. Horrez gainera, gaur egun agintean daudenek ez dute behar adinako ezagutzarik genero ikuspegiari buruzko eskualdeko araudiei buruz, eta jarraipen edo zaintza kaskarra gauzatzen dute –edo hutsa– araudi horien betetze mailari buruz. Horren ondorioz, gero eta zailtasun handiagoak daude eskualde garapenean genero ekitaterako eskualde politikak sortzeko. Hau da, ez dira ebaluatzen “eskualde garapenerako” proiektu handiek gizonengan eta emakumeengan dituzten inpaktuak.
- Emakume erakundeek herrialdeko testuinguru berri horri egokitu beharko lizkiokete beren agendak, gaur egungo genero arrailak arintzeko tresna eraginkorrak izan daitezen. Alde batetik, kontzertazio guneetan txertatu beharko lirateke, eskualdean genero ekitatea lortzeko egiten diren apustu hitzartuetan beren ahotsa eta agendak posizionatzeko.
- Kontzertazio guneek hobetu egin behar dute Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko artikulazioa, beren esku-hartzeek inpaktua izan dezaten eskualdeko genero auzian.

Gizarte zibilaren erronkak

- Gizarte erakundeek ordezkarrizta zabalagoa izatea partaidetza eta eragiletza garatzen duten espazioetan, horretarako beharrezko baldintzak eta ahalmenak bereganatuta. Proposamenen ordezkagarritasun eta zilegitasun soziala bermatzeko barne prozesuak eskatzen ditu horrek, eta, ildo horretatik, espazio horietan biltzen diren emakume erakundeen instituzionalizazioa hobetzea ekitatearen eta genero berdintasunaren ikuspegitik.
- Gizarte mugimenduak artikulatzea, genero ikuspegia atxikita duten proposamenak eraikitzeke, aurkezteke, gauzatzeko eta zaintzeko. Proposamenik gabeko partaidetza gauzatzen denean, ekintza iragankorrak bideratzen dira, ez da prozesurik abian jartzen; horregatik, erakundeak ahalduntzen laguntzeko, emakume eta gizon asertibo, prospektibo eta aldaketa eragileen lidergoa behar da. Era berean, beharrezkoa da Estatuan nahiz gizarte zibilean konpromisoa mobilizatuko duten genero ikuspegiko proposamen kolektiboak aurkezteke ahalmena.
- Gizarte zibila ahalduntzeko ekintza estrategikoak garatzea, bereziki emakumeak eta gazteak ahalduntzeari begira, genero berdintasunerako agenda sendoak eta mobilizazioa sustatzeko. Horretarako, abian jarri behar dira emakumeak ahalduntzeko gizarte artikulaziorako prozesuak eta dinamikak, emakumeak eragile giltzarriak eta ezinbesteko aliatuak izan daitezzen eskualdean genero berdintasuna bere baitan hartuko duen giza garapen bat sustatzeko.
- Gizarte erakundeek erabakiguneetan eta kontzertazio guneetan duten zilegitasuna indartzea, proposamenek gizarte babesa izan dezaten.
- Gizarte erakundeetako emakumeen eta gizonen ahalmenen garapena sustatzea, Estatuarekin negoziazio estrategikoa bideratzeari begira. Herritarrek Estatuaren hizkuntza ikasi behar dute, elkar ulertuko badute; baita inbertsio publikoari buruzko oinarritzko ezagutzak barneratu ere, genero ikuspegia atxikita duten politika publikoak inplementatzeko aurrekontu esleipen egoiak eratu eta eskatzeko; Estatuak giza eskubideak betetzeari buruz dituen edukiak eta konpromisoak ezagutu eta ulertu behar dituzte, eta biztanleriaren ongizatean duen erantzukizunaz ohartu, baita Estatuak emakumeen eskubideen bermatzeko dituen konpromisoen berri izan ere.
- Herritarren partaidetza arautzea, herritarrak benetan izan daitezzen beren intereseko erabaki publikoen diseinuaren, garapenaren eta inplementazioaren

parte. Arautegi horrek gizarte aldaketa sakon eta iraunkorrak bermatu behar-ko lituzke.

Kontzertazio guneen erronkak

- Kontzertazio estrategia sendotzea, politika ekitatiboagoak eta inklusiboagoak lortzeko mekanismo gisa, herrialdea deszentralizatzeko prozesuaren baitan, betiere, non irekitzen ari baitira Estatuaren eta gizarte zibilaren arteko topaketarako legezko hainbat maila. Horretarako, funtsezkoa da emakume erakundeak partaide izango dituzten kontzertazio guneak sendotzea.
- Kontzertazio estrategia sendotzea, proposamenak, Estatu eta gizarte zibila finkatzeko mekanismo gisa, genero arrailei eta haien jarraipenari begira, eskualde mailako konpromisoak eta erantzukidetasuna ahalbidetu dezaten neurri horretan.
- Politiken lerrotatze argiak eta eraginkorrak definitzea eskualde mailan, deszentralizazio prozesuaren baitan, eskualdeko politika publikoaren eragileen artikulazioa laguntzeko, eskualde, probintzia eta barrutietan genero ekitaterik eza murrizteko esku-hartze sistematikoa laguntzeko eta errealitate horiek gizonentzako eta emakumeentzako aukera bihurtzeko.

Estatuaren erronkak

- Eskualdeko informazio sistema bat edukitzea, informazio eguneratua, errealia, egokia eta sexuka bereizia biltzeko; ezinbesteko baldintza da berdintasunaren ikuspegitik proposamenak egiteko eta generoen arteko arrailen murrizketa ebaluatzeko.
- Genero ikuspegiko politika publikoak sortzea, aintzat harturik arrailak nahiz arraila horiek sortzen eta iraunkortzen dituzten faktore sozial, instituzional eta ekonomikoak; hartara, politikak modu sistematikoan aurre egingo die arrailei. Politiken implementazio eta jarraipen eta ebaluazio prozesu egokia bermatuko dituzten araudiez horniturik, gainera.
- Erakunde Gaitasunak Garatzeko Plana implementatzea, eskualdeko politika publikoen eragileak trebatzeko eta instrumentalizatzeko, politiken formulazioan, exekuzioan eta ebaluazioan genero ikuspegia txertatzeari eta zeharlerro gisa ezartzeari begira.

- Kudeaketa publikoan genero analisia sartzea, gaitze planarekin sortutako ahalmenetatik abiatuta. Prozedura instituzionalak sortzea jarduera instituzional iraunkorra sustatzen laguntzeko, zuzendaritza, arlo, bulego edo denik eta gune instituzional txikiak arduraren funtzional bakoitzean genero ikuspegia aintzat har dezan.
- Genero ekitateko politikari egokituriko zerbitzua ematea.
- Sektore eta gobernu maila guztien arteko artikulazioa sustatzea, identifikatu eta lehenetsitako arrailak murrizteko.
- Baliabide ekonomikoak esleitzea.

Puntu honetan, merezi du Velásquez, C., F. eta González aipatzea. Hain zuzen ere, *Zer gertatu da herri partaidetzarekin Kolonbian?* lanean, zera diote egile horiek: *“Sistema demokratikoen oinarria da arlo publikoa sendotzea, arlo hori harturik erabaki kolektiboak landu eta hartzeko eragile sozial eta politikoen arteko topagune gisa. Ildo horretatik, herri partaidetzak sendotu egiten ditu, aldi berean, Estatua nahiz gizartea, ez bata ez besteak beren nortasuna galdu gabe”*.

Arlo publikoan eta erabakigune politikoetan emakumerik ez aritzea: hori bada galera bat, eta handia gainera, biztanleriaren erdiari baino gehiagori eragiten diona, ez dituelako bere baitan biltzen emakumeen begirada, interpretazio, kosmobisio eta ekarpenik; horrela bada, zer-nolako demokraziari buruz ari gara?

“Jakin badakigu benetako berdintasuna ez dela lortuko lege batekin. Nonahi ageri baita botere matxista, sexista, arrazista eta homofobikoa: Estatuan, elizetan, hedabideetan, alderdi politikoetan, enpresa pribatuetan. Berdintasunik eza iraunkortzen duten eredu kulturalak aldatzeko lanean dihardugu feministok egunez egun”.

Dorotea Wilsón, nikaraguar ekintzailea

